



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (Esp.: 1/2014, HERRI-LURREN USTIAPENA)

Aurkibidea:

| | |
|---|---|
| I. AURREKARIAK..... | 1 |
| II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK | 3 |
| 1. Ebazpena emateko organo eskuduna | 3 |
| 2. Kontzejuak | 3 |
| A. Izaera juridikoa | 3 |
| B. Kontzeju-errola | 4 |
| C. Ondasunen aprobetxamendua | 5 |
| 3. Aztertutako jokabidea | 6 |
| III. EBAZTEN DU..... | 7 |

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, batzordekidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean LEK), adierazi bezala osatuta 2016ko urtarrilaren 20an eginiko bileran, Ebazpen hau eman du 1/2014 HERRI-LURREN USTIAPENA espedientean.

I. AURREKARIAK

2. 2014ko apirilaren 8an, A.F.L.R. jaunak bidalitako idazki bati sarrera eman zitzaion Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA). Idazki horretan azaltzen zuen Txintxetruko kontzejuak (Donemiliaga, Araba) ukatu egin ziola kontzeju-errolan sartzea, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituen arren, bere esanean. Ukatze horren xedea izango litzateke eskatzailea luberri eta nekazaritza-finka komunalen ustiapenetik kanpo uztea.

3. 2014ko maiatzaren 26an, gai hauei buruzko informazioa eskatu zitzaion TXINTXETRUKO ADMINISTRAZIO BATZARRAri:

- Txintxetruko kontzeju-errolan sartzeko eskatzen diren baldintzak eta jarraitu behar den prozedura.



- Txintxetruko kontzeju-eroldan inskribatutako kopuruaren eboluzioa, 2010etik aurrera.
- Txintxetruko kontzeju-eroldan inskribatzea ukatu zaienen zerrenda, 2010etik aurrera.
- Txintxetruko luberri eta nekazaritza-finka komunalak ustiatzeko eskatzen diren baldintzak eta jarraitu behar den prozedura.
- Txintxetruko luberri eta nekazaritza-finka komunaletarako Europar Batasunetik jasotako diru-laguntzak, 2010etik aurrera.

2014ko ekainaren 11n jaso zen informazio hori.

4. 2014ko uztailaren 7an, LEAko Ikerketa Zuzendaritzak Ebazpena eman zuen. Ebazpen horretan, ezkutuko informazioari hasiera ematea agintzen zuen, gero, behar izanez gero, zehapen-espeditatea hasteko Txintxetruko kontzejuko herri-lurren ustiapenaren inguruan, Lehiaren Babesari buruzko Legeak 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.¹

5. 2014ko uztailaren 10ean, berriro ere informazioa eskatu zitzaion TXINTXETRUKO ADMINISTRAZIO BATZARRAri, gai hauei buruz oraingoan:

- Kontzejuak 2011ko martxoaren 14an hartutako erabakia, kontzeju-errola behin betiko onartu eta pertsona bat kanpoan utzi zuena, jasotzen duen aktaren kopia.
- Kontzejuak 2011ko uztailaren 2an hartutako erabakia, pertsona batek kontzeju-eroldan inskribatzeko egindako eskaera ezetsi zuena, jasotzen duen aktaren kopia.
- Txintxetruko luberri eta nekazaritza-finka komunalak ustiatzen dituzten edo ustiatu dituzten pertsonak edozein erakundetatik jasotako diru-laguntzak, 2010etik aurrera.

2014ko uztailaren 24an jaso zen informazio hori.

6. 2014ko azaroaren 19an, gai hauei buruzko informazioa eskatu zitzaion EUSKO JAURLARITZAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA ZUZENDARITZAri:

- Diru-laguntzarako eskubideak 2001, 2002 eta 2003. urteetan sortutakoak bakarrik dira, ala orain ere eskubideak sortzen jarraitzen da?
- Bere garaian sortutako eskubideek diru-laguntzarako aukera ematen jarraitzen dute, gaur egun finkak lantzen dituzten ala ez kontuan izan gabe?

2014ko abenduaren 9an jaso zen informazio hori.

7. 2015eko apirilaren 21ean, gai hauei buruzko informazioa eskatu zitzaion salatzaileari:

¹ Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (BOE 159. zk., 2007ko uztailaren 4koa), gero lege hauek aldatua: 39/2010 Legea (abenduaren 22koa, BOE-A-2010-19703); 2/2011 Legea (martxoaren 4koa, BOE-A-2011-4117), eta 3/2013 Legea (ekainaren 4koa, BOE-A-2013-5940). Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>



- Txintxetruko kontzeju-eroldan inskribatzeko jaso dituen ezezkoen zerrenda.
- Inskribatzea ukatzeko ebazpenen kopia.
- Ezezko horien kontra jarri dituen errekurso administratibo edo judizialak, horrelakorik jarri badu, eta horien emaitza.

2015eko ekainaren 15ean berriro eskatu zitzaion informazio hori salatzaileari.

Oraindik ez du bidali.

8. 2016ko urtarrilaren 13an, LEAko Ikerketa Zuzendaritzak proposamen bat bidali zion LEK honi, Txintxetruko kontzejuko herri-lurren ustiapenaren inguruko zehapen-prozedurarik ez hasteko.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Ebazpena emateko organo eskuduna

9. Lehiaren Babesari buruzko Legearen 49.3 artikulua ezartzen du:

Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzaren proposamenez, lege honen 1., 2. eta 3. artikuluetan debekaturiko jokabideak ustez burutu izatetik eratorritako prozedurak ez abiaraztea eta auzibide-agiriak artxibatzea erabaki dezake legea hautsi den zantzurik ez dela irizten badio.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeak 10. artikuluan ezartzen du²:

10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira: (...)

e) Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzea ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espeditente bihurtu baino lehen, (...)

2. Kontzejuak

A. Izaera juridikoa

10. Arabako Kontzejuei buruzko Foru Arauak ezarritakoaren arabera, Kontzejuak (edo Herri Batzarrak) lurraldeko entitate lokal batzuk dira, nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena dutenak, eta udalerria baino txikiagoa den barruti batean eskumena dutenak³.

² EAEko 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (EHAA, 29. zenbakikoa, 2012ko otsailaren 9koa).

³ 11/1995 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko herri-batzarrei buruzkoa (ALHAO 38. zk., 1995eko martxoaren 31koa), gero beste arau hauek aldatua: 13/1997 Foru Araua, apirilaren 24koa, Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren Lehen Xedapen Iragankorra aldatzen duena (ALHAO 5. zk., 1997ko maiatzaren 12koa); 4/2004



Arabako Lurralde Historikoko Kontzeju guztiak ofizialki aitortutako udalerrietako batean kokaturik daude.

Kontzeju edo Herri Batzarra bi eratara antola daiteke: Kontzeju edo Batzar Irekia izanik edo Kontzeju edo Batzar Itxia izanik; bi kasuetan, Batzarburu bat edukiko dute eta, hari laguntzeko, Administrazio-batzar bat.

11. Auzo-batzarra edo Kontzeju Irekia erakundearen organo gorena da, barrutiko adin nagusiko auzokideek osatzen dute, eta Errejidore-batzarburu batek zuzentzen du.

Kontzejuaren Errejidore-batzarburua pertsona bakarrak osatzen duen organo betearazlea da, eta bera da Kontzejuaren legezko ordezkaria.

Kontzeju edo Batzar Irekietan, Administrazio-batzarra da administrazioaz arduratzen den organoa. Kontzeju edo Batzar Itxietan, aldiz, gobernuaz eta administrazioaz arduratzen da Administrazio-batzarra.

Txintxetru Kontzeju Irekia da antolaeraz, eta, beraz, Auzo-batzarra, Errejidore-batzarburua eta Administrazio-batzarra ditu.

B. Kontzeju-errola

12. Kontzejuen Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontzejuan urtean zazpi hilabetez gutxienez bizi eta etxe irekia duten biztanleak inskribatuta egongo dira Kontzeju-errolan.

Urtean zazpi hilabetez gutxienez etxe ireki batean bizitzeko baldintza betetzen dela argi eta garbi ez badago, baldintza betetzen dela onartu ahal izateko, interesdunaren zinpeko adierazpena beharko da, barrutian bizi diren baina interesdunarekin inolako ahaidetasunik ez duten beste bi lekukoren testigantzarekin batera.

13. Kontzejuen Foru Araua garatzen duen Foru Dekretuak ezartzen du Kontzeju bakoitzeko Administrazio-batzarrari dagokiola Kontzeju-errola egitea⁴.

Foru Araua, otsailaren 9koa, martxoaren 20ko Arabako Lurralde Historikoko herri-batzarrei buruzko 11/1995 Foru Arauaren Lehen Xedapen Iragankorra aldatzen duena (ALHAO 21. zk., 2004ko otsailaren 18koa); eta 4/2006 Foru Araua, martxoaren 27koa, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari honakoa agintzekoa: udal barrutien aldaketa edo mugaketa espedienteei buruzko eta kontzejuak aldatzeko, banatzeko edo ezabatzeke espedienteei buruzko irizpena eman dezala (ALHAO 43. zk., 2006ko apirilaren 12koa).

⁴ 115/1995 Foru Dekretua, azaroaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena, kontzeju-errolaren egitura, eguneratzea eta gutxieneko edukia arautzen dituen Erregelamendua onartzeko (ALHAO 145 zk., 1995/12/13).



Administrazio-batzarrak Kontzeju-errola egiten duenean, auzotarren Kontzeju irekiari aurkeztu behar dio, hasierako onespena eman diezaion.

Ondoren, jendaurrean jarri behar da hilabetez, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan diezazkioten Batzarburuari.

Aurkezten dituen erreklamazioak Kontzeju Irekiak ebatziko ditu.

C. Ondasunen aprobetxamendua

14. Su edo egurketa-unitate deitzen zaie Kontzejuaren barrutian urtean zazpi hilabetez gutxienez etxe irekia duten eta kideren bat kontzeju-errolan inskribatuta duten famili-unitate independenteei (Kontzejuen Foru Arauaren 3.4 artikulua).

15. Kontzejuen Foru Arauaren 43. artikuluan ezarritakoari jarraiki, nekazaritza alorreko ondasun higiezinak, ondarezko ondasuna, auzo-aprobetxamenduak, auzo-lurren goldaketa eta egur-loteen banaketa suen edo egurketa-unitateen arabera egin behar dira, eta horretarako honako baldintzak bete behar dituzte haien titularrek:

- a) Adinez nagusi, adingutxiko emantzipatu edo epaibidez gaitua izatea.
- b) Urtebete gutxienez eramatea kontzeju-errolan inskribaturik.
- c) Sua edo egurketa-unitatea osatzen duten partaide guztiak Kontzejuak agindutako kanon, ordainarazpen eta auzolanak beteta edukitzea.
- d) Euren zuzenean erabili eta baliatzea,

Adierazitako horri kalterik egin gabe, mendiei buruzko foru-araudian jasotako ustiapenak Kontzeju bakoitzaren Ordenantzen eta Mendiei buruzko Foru Arauaren arabera egingo dira ⁵.

16. Mendiei buruzko Foru Arauak 47. artikuluan ezartzen duenez, nekazaritza edo bazka laborantzarako aurreko landare-estalduraren luberriketa eta lurren goldaketa onartu ahal izango dira, aldi baterako erabilera-aldaketatzat hartzen badira eta mendien ingurumen- eta paisaia-iraunkortasunaren izaera kontuan hartuta. Luberriketaren baimena eman ahal izateko, lurren egoera onaren iraunkortasuna bermatu beharko da, higaduraren, arrastearen edo emankortasun-galeraren arriskurik gabe.

Herri-titulartasuneko mendi katalogatu edo mendi babesleetan luberritutako lurzatiak mendien arloan eskumena daukan Foru Aldundiaren Sailak baimena eman ondoren esleituko dira, administrazio-emakida gisa. Lurzatia eman edo

⁵ 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, Mendiei buruzkoa, iraunkorrarena (ALHAO 44 zk., 2007ko apirilaren 13koa).



esleitzeko ezarri diren betekizunen bat ez betetzeak aukera emango dio erakunde titularrari esleitutako luberriaren jabetza berreskuratzeko.

Luberriketa baimentzean, mendien arloan eskumena daukan Foru Aldundiaren Sailak luberriketa egiteko baldintza fisikoak eta horren iraupena zehaztuko ditu, luberriketaren betekizunak betez gero berrizta daitezkeen bost urteko gehieneko epean, baita esleipen-hartzaileak erakunde titularrari ordaindu beharreko urteko kanona eta aldizka eguneratzeko oinarriak ere.

17. Mendiei buruzko Foru Arauaren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, luberriketen onuradun izan ahal izango dira mendiaren jabe den tokiko erakundeko su edo egurketa-unitateak, jabe den erakundeak erabilgarri dagoen luberriketa-azaleraren arabera egurketa-unitate bakoitzeko ezarritako gehieneko azalerraino.

Egurketa-unitate horien titularrek hurrengo betekizun orokorrak bete beharko dituzte:

- a) Adinez nagusia izatea, erretiroa hartu ez duena, zein adingabe emantzipatua edo epai bidez gaitua, eta zuzenean eta norberak –edo titularrarekin batera bizi diren senideen laguntzaz– bere lurrak nekazaritza laborantzaren bidez lantzea, soldatapeko langileak noizean behin, nekazaritza ustiatetik urtaroko eskakizunak direla-eta, bakarrik erabilita. Hala ere, betekizun hori ez da ez-betetzat joko, norberak aurretik zehaztu den moduan lan egiten jarraitzea eragozten duen gaixotasun edo beste arazoirenen bat egotekotan soldatapeko langile bat edo bi erabiltzen denean/direnean.
- b) Arabako Foru Aldundiaren bidezko ustiatetik erregistroetan inskribatuta egotea.
- c) Kontzejuko erroldan auzotar gisa inskribatuta egotea urtebete bateko gutxienezko antzintasunaz; horrez gain, erakunde titularrak ondore horretarako egiten duen erroldaren barnean egotea, gazte nekazariak izan ezik; izan ere, kasu horretan erakunde titularrak antzintasunaren betekizuna kendu ahal izango du.
- d) Egurketa-unitateko kide guztiek erakundearen kanon, ordainarazpen eta auzolanak bete eta ordaindu beharra egunean izatea.
- e) Erregistratutako ustiatetik lan egiteko behar beste makina izatea, jabetza edo froga daitezkeen alokairu erregimenean.

3. Aztertutako jokabidea

18. Salaketaren muina da Txintxetruko Administrazio-batzarrak salatzaileari ukatu egin diola kontzeju-erroldan inskribatzea, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituen arren bere iritziz, eta, ondorioz, aukerarik gabe utzi dutela nekazaritza-finken eta mendien aprobeixamenduan parte hartu ahal izateko.

Horrela bada, Administrazio-batzar horrek salatzailea kontzeju-erroldan inskribatzeari ezezkoa eman dionean lehiaren aurkako jarduerarik egin ote duen aztertu behar da.



19. Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1. artikulua debekatu egiten ditu merkatu nazional guztian edo haren parte batean lehia eragozte, murriztea edo faltsutzea helburu duten edo hori eragiten duten edo eragin dezaketen hitzarmen, erabaki edo gomendio kolektibo guztiak, edo jardunbide hitzartu edo oharatu paralelo guztiak.

Lehiaren Babesari buruzko Legearen 2. artikulua arabera, debekatuta dago merkatuko nagusitasun-egoera abusuz esplotatzea. Artikulu horretan ezarritakoa aplikagarri izan dadin, bi baldintza hauek bete behar dira, gutxienez: batetik, eragile ekonomikoak nagusitasuna izan behar du merkatu horretan; eta, bestetik, jokabideak abusuzkoa izan behar du. Artikuluak abusutzat jotzen du, besteak beste, merkataritza- zein zerbitzu-harremanetan, prestazio baliokideei baldintza desberdinak aplikatzea, hartara lehiakide batzuk desabantaila-egoeran jarri besterik ez duten aldean.

20. Espedientean jasota dauden datuetan oinarrituta, ezin da egiaztatu eragile ekonomikoen arteko akordiorik egin den edo nagusitasunaz abusatu den merkatuaren funtzionamendua aldatzeko xedearekin.

Bestalde, ezin izan da egiaztatu –eta salatzaileak ez du gai horri buruzko daturik aurkeztu– Txintxetruko Administrazio-batzarrak salatzaileari baldintza desberdinak aplikatu dizkiola Erroldan sartzea eskatu duten gainerako auzotarrekiko.

III. EBAZTEN DU

BAKARRA.- Baiestea Ikerketa Zuzendaritzaren Ebazpen Proposamena, eta, beraz, Txintxetruko kontzejuko (Donemiliaga, Araba) herri-lurren ustiapenaren inguruko zehapen-prozedura ez hastea erabakitzea.

Komunika bekie Ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari, salatzaileari, Txintxetruko Administrazio-batzarrari eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, jakinarazpena egin eta bi hilabeteren barruan.